

DEIALDIA – IKASTALDIA



Hecho en casa konpainiak

emazte antzezleak bilatzen ditu

"Caché dans son buisson de lavande, Cyrano sentait bon la lessive" /
"Bere izpika sasi giblean gordeturik, Cyranok lixiba usain goxoa zeukan"
ikusgarriaren euskal bertsioaren sorkuntzaren kari, konpainiak talde artistiko euskaldun bat osatu nahi du. Sorkuntza 2017ko udazkenerako aurreikusia da.

3 euskaldun antzezle bilatzen dira, 25 eta 40 urte arteko emazteak esperientzia profesional batekin.

Deialdia hiru egunetako ikastaldi bat izanen da :

Urriaren 10ean, 10:00 – 18:00, astelehenez

Urriaren 11n, 9:00 – 16:00, asteartez

Urriaren 13an, 10:00 – 18:00, ostegunez

Donostiako Lugaritz Kultur Etxean

Ikastaldian zehar maskaren teknikak, gorputza ariketa, "Cyrano" obra eta inprobisaketa saioak landuko dira.

Parte hartzaileei hiru egunez etortzea eskatzen zaie.

Ikastaldian parte hartzeko eta hautagaitza aurkezteko, milesker igortzea :
Curriculum-a + argazki bat(zu) + motibazio gutuna

2016ko irailaren 1a aitzin

E-postaz : cie.hecho.en.casa@gmail.com

Cie Hecho en casa - maison des associations - 11 Allée de Glain - 64100 Bayonne

<http://cie-hechoencasa.com>



donostiakultura.com

